

David Beckhamek 106.684 €
kobratuko du eguneko.



Bi kantitateren arteko erlazioa
(arrazoia, ratioa) adierazteko
erabiltzen da **-KO** atzizki
banatzailea.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Oharra:

Esapide banatzailea sortzeko, ez da -GATIK kausazko atzizkia erabili behar.

- * David Beckhamek 106.684 € kobratuko du **egunagatik**.
- * David Beckhamek 106.684 € kobratuko du egun **bakoitzagatik**.

Adibide hori, honela ere adieraz daiteke:

🌐 David Beckhamek 106.684 € kobratuko du **egunean**.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



- Larunbatean, metro koadroko 35 litro euri jaso zituzten.
 - Larunbatean, 35 litro euri jaso zituzten metro koadroko.
- Mailegaturiko liburuko 0,2 € kobratuko dute.
 - 0,2 € kobratuko dute mailegaturiko liburuko.
- Metro kubikoko 69 zentimo inguru ordaintzen dute.
 - 69 zentimo inguru ordaintzen dute metro kubikoko.



- Populazio-dentsitatea kilometro koadroko 24 lagunekoa da.
- Bidesaria kilometroko 0,7 € da.
- Ardoaren prezioa litroko 2,9 € da.
- Baimendutako abiadura orduko 50 kilometro da.



Deklinatuz gero:

- Orduko 60 kilometroan zetorren.
- Litroko bi gramo CO_2 -tik zentilitroko bi gramo CO_2 -ra jaitsi da kontzentrazioa.
- Segundoko metrotan neurtzen da abiadura.
- Irakasleko 15 ikasleko ratioaren arabera banatu behar dira ikasgelak.



Esapide banatzailea izen bati loturik:

- Metro koadroko biztanle kopuruaren arabera aldatuko da emaitza.
- Motor berriekin, kilometroko erregai-kontsumoa oso txikia da.
- Litroko balioa merkatuaren araberakoa da.
- Biztanleko batez besteko gastuak gora egin du.
- Biztanleko eta eguneko gastua % 0,5 murriztu da.
 - Biztanleko eta eguneko egiten den gastua % 0,5 murriztu da.



- **Kilometro koadroko 24 laguneko populazio-dentsitatea oso txikia da.**
 - *24 lagun kilometro koadroko populazio-dentsitatea oso txikia da.
- **kilometroko 0,7 €-ko bidesariari oso garestia deritzot.**
 - *0,7 € kilometroko bidesariari...
- **Litroko 2,9 €-ko prezio hori negoziya daiteke.**
 - *2,9 € litroko prezio hori...
- **Orduko 50 kilometroko abiaduran zetorren.**
 - *50 kilometro orduko abiaduran...



Esapide banatzaileak ditugu honako adierazpen hauek ere:

● Irakurketa lineala hobetsita, honela irakurriko ditugu:

- m/s ● metro zati segundo
- m/s^2 ● metro zati segundo karratu
- kg/m^3 ● kilogramo zati metro kubiko
- rad/s ● radian zati segundo
- rad/s^2 ● radian zati segundo karratu
- $J/(kg \cdot K)$ ● joule zati kilogramo kelvin
- $W/(m \cdot K)$ ● watt zati metro kelvin
- V/m ● volt zati metro



Eta izenari lotuak:

- ...m/s-ko abiadura
 - ... metro zati segundoko abiadura
- ... m/s²-ko azelerazioa
 - ... metro zati segundo karratuko azelerazioa
- ... kg/m³-ko dentsitatea
 - ... kilogramo zati metro kubikoko dentsitatea
- ... rad/s-ko abiadura angeluarra
 - ... radian zati segundoko abiadura angeluarra
- ... rad/s²-ko azelerazio angeluarra
 - ... radian zati segundo karratuko azelerazio angeluarra
- ... J/(kg·K)-eko bero espezifikoa
 - ... joule zati kilogramo kelvineko bero espezifikoa



Gaia azaltzeko erabili ditugun adibideetan, erlazioak (arrazoiak, ratioak) unitatearekikoak (1ekikoak) izan dira:

- Orduko 50 kilometroko abiadura
 - Ordu batean 50 kilometro egiteko abiadura

Halakoetan, **bakoitzeko** esapidea ere balia dezakegu:

- 30 € ordaindu dugu liburu **bakoitzeko**.



Fitxa honetan gaia azaltzeko erabili ditugun erlazio, arrazoi eta ratioak unitatearekikoak (lekikoak) izan dira:

Erlazioa unitateaz

- Orduko 50 kilometro bestelako
 - Ordu batean 50 kilometro erreko abiadura
- Eta nola sortu behar dugu esapide banatzailea?

Hurrengo fitxan erantzungo diogu galdera horri.

